

Nafarroako nekazal ekoizpena % 9 hazi zen 1991. urtean

A.U. / IRUNEA

Nafarroako nekazal ekoizpena 1991. urtean, osotara, 86.309 milioi pezetakoa (4.315 milioi libera) izan zela jakinarazi zuen atzo Perez Lapazarain Nekazaritza sailburuak. Ekoizpena % 9 hazi zela esan nahi du horrek.

Hazkundera ez zen orokorra izan ordea. Horrela, abeltzaintzaren gainbehera nabarmena da: prezioek behera egin dute eta gero eta abeltzain gutxiago geratzen dira. Laboreen atalak % 60ko gorakada izan zuen 1991n, hein handian aurreko urtea, lehortearen ondorioz, oso txarra izan zelako. Fruta ekoizpena ere hobetu egin zen (916 milioi pezetan). Zainzuriak, berriz, behera egin zuten, ardoaren prezioak bezala.

Nekazarien errentari dagokionez, urtean hiru milioi pezeta jasotzen dutela dio Nafarroako Gobernuaren txostenak. Sailburuak berak aitortu zuenez, ordea, datu horrek ez du errealitatea isladatzen, ekoizpen kostuak eta ordaindu beharreko zergak ez direlako aintzat hartzen estatistikan.

Gobernuak bultzatutako pentsio plana «arrakastatsua» izan dela esan zuen Lapazarainek. Iaz hiru mila nekazari sartu ziren planean; 185 milioi pezeta jarri zituzten, Gobernuak bezainbeste, eta dagoeneko 400 milioiko fondoa sortu da. Nekazarien batezbesteko adina 54 urtekoa da eta, sailburuaren kalkuluen arabera, horiek erretiroa hartzerako 4.000 milioiko fondoa izango da.

NEKAZAL EH-SINDIKATUEN HAUTESKUNDEAK

UAGN Nafarroako bi nekazal talde nagusien arteko gorabeherak ere aipagai izan ziren atzo. Jakina denez, UAGNk kide kopuruaren datuak faltsutu egiten dituela salatu du EH-NEk eta hauteskundeak eskatu ditu sindikatu bakoitzari dagokion ordezkarietza ezagutzeko asmoz.

Lapazarain hauteskundeak antolatzeke prest agertu zen, baina urte erdi baino lehenago ezingo direla egin ohartarazi zuen, Nekazal Ganbararen transferentziak oraindik konpontzeko daudela argudiatuta.

UGT eta CCOOek ez dute onartuko CEOEk nahi duen soldata igoera

Soldaten kontuan patronalarekin ados daude Espainiako ganbarak

Aurten soldatak % 2,3 eta % 4,5 bitartean igotzeari buruz CEOE Espainiako patronalak egindako proposamena «onartezina» dela adierazi dute UGT eta CCOO sindikatuek. Espainiako Merkatal Ganbaren Kontseilu Gorena, berriz, patronalarekin bat etorri da soldaten kontuan.

MADRIL

Nicolas Redondo UGT sindikatuko idazkariak atzo adierazi zuenez, «ez dugu inondik inora % 5aren azpitik legokeen soldata igoera onartuko, ez eta garantzia klausulak kentzerik».

Jose M^a Cuevas CEOEko lehendakariaren proposamenak eta Madrileko Gobernuak zenbait kideren hitzek 1993a «urte gatazkatsua» izango dela iragaritzen dute Redondoren iritziz. UGTko arduradunak azpimarratu zuenez «gizarte osoak» erantzun behar die CEOEren planteamenduei, «patronala eta Gobernuaren tesiek aurrera egiten badute gure burua hiltzera kondatutak egongo baikara».

Madrileko Gobernuaren ekonomia politika eta bere arduradunak «aldatu beharra» berretsi zuen Nicolas Redondok. Lan Ministerioari «bere ardurez jabetu dadin» eskatu zion, «askotan Ekonomia Ministerioa bakarrik dagoela ematen baitu».

CCOO sindikatuko idazkaria den Antonio Gutierrezek patronalaren lehendakariak erakutsitako «gogorkeria izugarria» salatu zuen. Bere esanetan CEOEren proposamenak «iraingarriak dira kontzientzia demokratikoa duen edozeinentzat».



Sindikatuak ez dute onartuko soldatak inflazioaren azpitik igozea.



Gutierrezek azpimarratu zuenez, sindikatuek «enplegua eta honekin batera Espainiako enpresen konkurrentzialtasunaren aldeko negoziaketa politika defenditzen» jarraituko dute. Era berean, CCOOko idazkariak Madrileko Gobernuaren jarrera salatu zuen, «CEOEren tesiekin bat etortzeagatik».

GANBARAK ETA PATRONALA ADOS

Spainiako Merkatal Ganbaren Kontseilu Goreneko lehendakaria den Guillermo de la Dehesaren esanetan CEOE patronalaren soldata igoerarako proposamena «1993ko hitzarmen kolektiborako zentzuzko abiapuntu ezin hobea» da.

Era berean, Espainiako enpresarien elkarteak proposatzen duen bezala, atzerriko merkaturak jarduten duten enpresa edo sek-

toreen kasuan soldata igoerak inflazio gutxien izan duten Europako hiru herrialdeetan ematen dena izatea defenditzen dute ganbarek.

De la Dehesak ere iaz aurtengo ekitaldirako sinatu ziren hitzarmenak berriro aztertzea proposatu zuen.

Ganbaren Kontseiluak aditza eman duen abagune azterketaren arabera, Espainiako ekonomia hazkundera iazko azken hiru hilabeteetan gelditu egin zen. Ganbaren ustez Barne Produktu Gordinak % 1aren inguruko hazkundera izan zuen 1992ko ekitaldian.

De la Dehesak jakinarazi zuenez, beren aurrikuspenen arabera ekonomia hazkunderaren moteltzeak 1993ko lehen bi hiruhilabetekoetan jarraitu egingo du eta ez du maila baxuenera iritsiko urtearen bigarren erdira arte.

EAEko kamioizaleen % 66 autonomia da

BILBO

Euskal Autonomi Elkarteak kamioizaleen % 66 kamioiaren jabea da eta autonomo gisa aritzen da, hau da, autopatronoa da. Egitura enpresariala, beraz, oso atomizatua dago EAEko errepedezko garraioaren sektorean Eustat estatistika erakundeak egindako ikerketan ondorioztatzen denez.

Kamioien % 85 bost ibilgailu baino gutxiago dituzten enpresetan biltzen dira Eustaten datuen arabera. Era berean, ikerketan jasotzen denez kamioi bat edo biz osatutako enpresetan produktibitatea txikiagoa da, eta bestalde, garraio zerbitzuetarako besteen ibilgailuak kontratatzeke joera hedatzen ari da.

Gipuzkoa da sektore honetan

«produktiboena» den EAEko probintzia. Eustateko iturriek azaldu dutenez bertan merkaturaren bereizgarritasunetara «hobekien egokitua» dago sektorea.

1990. urtean 15.373 langile biltzen zituen errepedezko garraio sektoreak EAEn, aurreko urtean baino % 3,35 gehiago. Kamioi kopuruari dagokionez % 3,55ko hazkundera izan zuen 1989tik 1990era bitartean, azken urte honetan 13.286 ibilgailutara iritsiz.

Aipatutako 1990eko ekitaldian EAEko Barne Produktu Gordinera 51.027 milioi pezeta (2.550 milioi libera) eman zituen sektore honek, aurreko urtean baino % 1,63 gehiago. Errepedezko garraioaren sektoreak 1990ean 13.000 milioi pezetako

(650 milioi libera) inbertsioak egin zituela jakinarazi zuen Eustatek, 1991n baino % 59,23 gehiago, alegia.

LABURREAN

EZKERRALDEKO industri eraispeneren aurkako ibilaldia

Bilbo Ezkerraldeko etorkizunaren defentsarako sorturiko Ezkerraldea izeneko herri mugimenduak eskualde honetako industri deuseztapeneren aurkako ibilaldia antolatu du datorren iganderako. Ekimen honen helburua «Bizkaiko labe garaiak ezezik, gainontzeko produkzio sektoreek ere pairatzen duten industri eraispena dela eta, iritziz publikoan kontzientzia sortzea da».

GENERAL Motorsek lantegirik ez duela ipiniko berretsi du

General Motors multinazional amerikarreko ordezkari batek Euskal Herrian lantegirik ez dutela ipiniko berretsi zion atzo 'Expansión' egunkariari. Ekonomi egunkari horrek dioenez, John Pekarek GMko Europako harreman publikoetarako ordezkariak konpainiako beste elehun batek eginiko adierazpenak egiaztatu egin zituen eta Europar faktoriarik ez dutela eraikiko ziurtatu zuen.

UGTk eutsi egin dio CCOOren batasun proposamenari

Josu Frade UGTko idazkari nagusia prest dago CCOOko proposaturiko bilerara azaltzeko, sindikatuen arteko batasuna berreskuratzeko helburuz. Batasun hori «ez dugu geuk apurtu» gogoratu zuen Fradek. Haustura iazko maiatzeko greba orokorarean gertatu zela uste du UGTko ordezkariak, «zentzurik ez daukan langile nazionalista eta estatualisten arteko banaketarekin».



ZUMARRAGAKO UDALA

EDIKTUA

Udal Batzarrek 1992ko azaroaren 30ean egin zuen bilera berezian, hasierako onespina eman zion Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bategineko 4. Arlorako (Sekundino Esnaolako etxeak) eta 7. Sektorerako (Oiaungo Industrialdea) proposatutako hirigintza antolamenduari, izan ere, 1990eko urriaren 24eko Diputatuen Batzarrek Arau Subsidiarioak behin betiko onartu arren, bi inguru hauetakoa erabakitzeke gelditu bait zen.

Onetsitako hirigintza antolamendu proposamena, ediktu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta zabalkunde haundieneko egunkarian argitaratu ondorengo hilabeteen emango zaie ezagutzera interesatuei, egunkarian argitaratu eta biharamunetik aurrerako hilabeteen alegia, aztertu eta egoki iritzitako eragozpenak azaldu eta erreklamazioak egin ditzaten.

Zumarragan, 1993ko urtarrilaren 8an. ALKATEA